

HONDARRIBIKO

JAIAK 2022

BIDASOA.HITZA.EUS

OARSOALDEA.HITZA.EUS

Argazkia: Rebeka Ruiz

Hondarribiko jaiak ez dira salbuespen izan. Itzuli dira. Hilaren 6an izango da hasierako ekitaldia, Kale Nagusian eta 11:00etan, haurrentzako batez ere gozagarri den jarduerarekin. Bestelakoan, ohikoak diren ekitaldi asko, desagertu den baten bat, eta berririk ere bada. Baina Hondarribiko Guadalupeko Amaren Jaien ekitaldi nagusia hilaren 8ko Alardea da.

2019ko azken Alardetik berritasunik ba al da? Ez. Alarde Fundazioaren barruko 21 konpainiek euren ikuspegi eta jokaera itxi, baztertzaila eta hertsiarekin jarraituko dute. Jaizkibel konpainian, berriz, harro sentituko dira herriko festetako ekitaldi nagusia denentzat eta denena dela uste dutenak, emozioz, sentimenduz eta parekidetasunez gainezka. 2019tik gaur arte gatazkari aurre egin eta konpontzeko egin diren eskaera eta deiak askotarikoak izan dira, baina itxuraz, alferrikoak. Sukaldeko lana egon omen da. Baina aurten behintzat, handik ez da jakirik aterako.

Jaizkibelen 25. urteurrena da aurten goa. Mende laurdena beteko dute herriaren aldeko sentimendua batzuenak bakarrik ez dela aldarrikatzen. X





Azken desfilea 2019an egin zuen Jaizkibel Konpainiak, arazorik gabe. R.Ruiz

Jaizkibel aurrera, konponbidea geldirik

Alardean parte hartzeko aukerarik gabe desfilatuko du berriz ere Jaizkibel Konpainiak. Hala ere, azken urteetan herritarren onarpena handitu denaren sentsazioa du Oihana Etxebarrieta kapitainak.

ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN

A larderik gabeko bi urte pasa dira, baina Jaizkibel Konpainia horregatik ez da geldirik egon. Oihana Etxebarrieta konpainiako kapitainak azaldu du egoera normal batean desfilatuko balute, konpainiaren antolakuntzara mugatuko litza-tekeela haien lana, baina tamalez,

oraindik asko dutela borrokatzeko. Hori horrela, konponbidea iristen denerako momentua baliatzen saiatzeko lanean ibili direla argitu du. Bide horretan, iaz, 2022ean 22. konpainia izateko eskaera egin zuten. Babesa jaso badute ere, ez dute hori gauzatzeko arduradunen erantzunik jaso.

Egungo egoera «argi eta garbi» ez dela duela 25 urtekoaren berdina dio Etxebarrietak «baina oraindik ere ez dugu

inondik inora gure sorreraren arrazoi hori zena lortu». Pandemia garaia tentsioak baretzeko eta elkarrizketa norabidetzeko urteak izango zirela uste zuten Jaizkibelgoek, baina haien sentsazioa da aukera bat galdu dela. Udala eta solasaldiak bideratu ditzaketenak elkarrizketak izateko espazio formalak sortzen saiatu direla dio Etxebarrietak, baina ez dela guztiz lortu azaldu du.

Hausnarketarako espazio informalek eratu direla onartu du, eta horretan bi urte hauetan sortu diren eragile berriak ere aritu direla. Horren aurrean, Jaizkibelak beti adierazi duen asmoari jarraiki, elkartzeko proposamen guztiei baiezkoa eman dietela nabarmendu du, hala nola, alkatearekin, Guztion Alardearekin, Abotsanitzekin edota EH Bildurekin batu direla esan du. «Elkarrizketa batzuk aberasgarriak izan dira eta beste batzuk ez. Denetan egon gara».

Espazio informaletan egon direnean herriaren egunerokotasunean, lagun artean eta familietan geroz eta gehiago hitz egiten dela auziaz uste du Etxebarrietak, baita askatasun gehiagoz ere, «hainbat eta hainbat mito eta gertakizun apurtzeko aukera gehiagorekin. Be-

reziki gure historiari dagokionean». So-lasaldi gehiago sortu izanak, elkarrizke-taren eta konponbidearen alde nortzuk egon diren, eta nortzuk jarraitzen duten pentsatzen gatazka honek izan behar duela herriaren festa egun nagusia ikus-teko balio izan duela ere iritzia du. «Guk jarraitzen dugu defendatzen ospakizun

Hausnarketarako espazio informalak sortu dira. Formalak ez, ordea

bat eta bakarria herri osoarentzat eta he-rriarri itzuliko zaion festa izan behar dela, hau da, Alardeak publikoa izan be-har duela».

25 URTEKO KONPAINIA

Sare sozialetan Jaizkibel Konpainiaren historiaren efemerideak jasotzen ari dira, urtez urte. Memoria ariketa hori noizean behin egitea garrantzitsua dela dio kapitainak, «jakiteko nondik gato-zen eta zenbat gauza pasatu diren, bere-ziki hainbat mito eta asmakizun sortu dituen gatazka baten aurrean». Aldi be-rean, aurrera egiteko atzera etengabe be-giratzeko egoteak, horretan iltzatzeak, zailtasunak eta oztopoak jartzen dituela adierazi du Etxebarrietak. «Gure hasie-rako helburu horrekin jarraitzen dugula irudikatzen laguntzen digu, ordea».

Gogorazten ari diren gauzen artean konpainiaren kontra egindakoak nahiz lorpenak daude, eta horretarako, artxibo lan inportantea egin dute. «Gotzone Elu argazkilaria eskerrak ematea dagokigu, berak zuen artxibo fotografikoan araka-tzen utzi baitigu. Eluz gain, gurekin ibili den Gari Garaialde ere aipatu behar da». Batez ere konpainiako gazteenen eran-tzunak jaso dituztela jakinarazi du: «'Hau etxean ez zidaten horrela kontatu' eta horrelakoak jaso ditugu, adibidez. Orain ikusten ari direnarekin jabetzen ari dira beste kontu batzuetaz».

Urteurrena ere ospatuko dute, urri amaieran. Xehetasunak gaur emango di-tuzte Hondarribia Berdintasunaren Hi-ria Sariaren banaketan. Ospatzeko gutxi eta asko dute kapitainaren esanetan, bo-rrokan daudela ez luketelako esan nahi

oraindik. Beste konpainiek dituzten ur-teurrenen gisa nahi lukete festa egin, baina egoera ez da hori. Horregatik ha-serre puntu bat ere irudikatuko dute. «Argi dago urtetik urtera geroz eta gehiago garela, onarpen sozial handiagoa dugula, gehientzako beste konpainia bat garela, eta hori ospatu behar da». Dena den, emakumeak Alardean orain-dik ez daudela ikusirik, herriak sutan egon behar lukeela dio Etxebarrietak.

HONDARRIBIA HIRIA SARIA

Irantzu Varela kazetari eta feministak jasoko du aurtengo Hondarribia Hiria Saria gaur, Jaizkibel Konpainia Kale Na-gusian babesten urteak daramatzalako, eta bereziki, feminismo eta berdintasun-aren dibulgatzailea delako. «Ahotsa eta presentzia erabili izan ditu berdintasun-aren eta feminismoaren aldeko mezuak zabaltzen jarraitzeko». Horrez gain, az-ken urteetan Varela jasan dako eraso ia fisikoen aurrean babesa eta elkartasuna emateko modu bat izango da saria. Sari-dunak izango ez diren arren, Euskal He-rriko Mugimendu Feminista eskertu nahi izan du, haien lanari esker aurrera doazelako eta eragin hori ezin ukatzekoa da Etxebarrietaren hitzetan.

Sariaz, kapitainak nabarmendu du aurtengo proposamen asko jaso dituztela eta horrek sariari garrantzia ematen zaiola adierazten duela. «Ikusten dugu sari honi garrantzia ematen zaiola. Jaiz-kibekek berau martxan jartzeko erabakia hartu zuenean, bazen nolabait elkarta-sun eta feministen aurrera urratsen la-

«Onarpen sozial handiagoa dugu, eta hori ospatu behar da»

nak herrian ere bai eragina duela era-kusteko modu bat. Baita kanpotik eta ingurutik egiten den orok ere berdinta-sunean alde eragina duela».

ENTSEGUAK

Hilaren 3, 4 eta 5ean egingo ditu Jaizki-belek entseguak. Lehen egunean Hon-dartza kiroldegitik abiatuko dira. «Ge-roz eta konpainia handiagoa gara eta al-daketa txiki bat sartzea interesgarria izan zitekeela pentsatu dugu». Era ho-rretan, entseguak lasaitasunez eta bide zabal batean egingo dituzte. Hurrengo bi entseguak, Bitoriano Juaristin hasiko dituzte, denak ala denak, 20:00etan. ✕

OLAGARRO
KULTUR ELKARTEA
Ongi irago herriko jaiak!

abotsanitz

Herriko jaietan parte hartu eta ongi pasa!

Falta direnak gogoan

Anitza

Euskalduna

Auzolana

Parte Hartzea

Konponbide nahiari babesak erakusteko irailaren 2a

ALAINE ARANBURU ETXEGOIEN

Hiru urte bete dira Gernikako Arbolan Alardeko gazte talde handi batek gaztaren gaineko iritzia berri bat publiko egin zuela: Alarde Fundazioak ez dituela ordezkatzen, eta emakumeen parte hartzea bermatuta egon behar dela esan zuten. Argazkia atera zutenean uste izan zuten horrekin nahikoa izango zela konponbidea lortu bidean elkarriketak hasteko, hau da, taldea sortzea ez zen izan haien asmoa. Alarde Fundazioari (AF) adierazi nahi izan



Gaurko 18:30ean berrituko dute Gernikako Arbolako argazkia. **HITZA**

zieten konponbidea lortzeko dagozkien urratsak ematen laguntzeko prest zuedela. Baina paretaren kontra jo dutela diote.

Ahaleginekin jarraituz, aurtengo uztailean 64 emakumek udalari eta AFri Alardean parte hartzeko eskaera egin zioten. AFk ezezko biribila eman, eta esan zien «arbasoek helarazi ziguten moduan egiten den Alardeari» eutsi nahi diotela. Erantzuna kontraesankorra da Guztion Alardekoentzat, proposatzen

ari direlako Alardea herria zatituta ospatzea. Taldearen erantzun osoa bidaso.hitza.eus-en irakur daiteke.

Bestalde, udal gobernuaren erantzunik ez dute izan. Haien politika herriko aldetan atzetik doala, eta horren arabera pausak eman behar dituztela gogorarazi diete taldekideek. Ausardia izan dezatela galdegin diete udal gobernuak, eta bide batez, gaur eguneratuko duten argazki nagusian egon daitezela, gatazka bukatzea nahi duen oro bezala. ✕



GORA
AMA GUADALUPEKOA!
FESTA GARBI ON BAT OPA DIZUEGU



TXINGUDIKO ZERBITZUAK
SERVICIOS DE TXINGUDI

«Nire intentzioa konpainia guztiak irudikatzea zen»

JOSE ANGEL LIGERO
KARTELAREN EGILEA

ANE MENDIZABAL SARRIEGI

Nondik dator aurtengo kartelaren ideia?

Jaietako ikono adierazgarrienak irudikatu nahi nituen, Alardea batez ere. Normalean argazkiak erabiltzen ditut, baina ez nuen Hondarribiko jaien argazkirik. Beraz, modu grafikoan sortzea erabaki nuen. Konpainia guztien kolore zein

ikono adierazgarriez gain, herriko elementu bat ere ipini nahi nuen. Alardeaz haratago, jaietan, gauza gehiago daudela adierazten du horrek.

Kartelean bi elementu uztartzen dituzu: ikonoak eta elementu geometrikoak.

Lehenengo aldia zen horrelako zerbait sortzen nuela. Dena perfektu geldituko zelaren berdurra izan nuen hasieran. Lehenik, kartela laukietan zatitu nuen. Argi nuen lauki bakoitzean elementu bat ipini behar nuela eta horiek ertzarekin ongi egokitu behar nituela. Azkenean ongi irten dela uste dut! Konpainia guztiek beren ñabardurak dituzte, eta kartelean bakoitzak bereizgarri bat izatea nahi nuen. Horrek kolore pixka bat eman dio kartelari.

Zer da zuretzako lehiaketaren irabazle izatea?

Duela 20 urtetik dudan zaletasuna da. Hasieran, argazkiak ateratzen nituen. Ondoren, diseinuak egitera igaro nintzen. Dagoeneko 200 sari inguru jasoko ditut. Oso gustuko dudan zerbait da.




Ane Mendizabal

Aurkeztutako kartela irabazle hautatua izatea eskertzekoa da. Hondarribia niretzako xarma berezia duen herri horietako bat da. Oraindik ez dut jaietan egoteko aukerarik izan [Errioxakoa da]. Izugarria litzateke barru-barrutik bizi ahal izatea. ✕

Ondo pasa Hondarribiko jaiak!

2022-2023 ikasturterako matrikulazio epea irekita



elduaaien

hizkuntzaeskola · academia de idiomas

IRUN - Jose Ramon Agirretxe Alkate Jauna Plaza 1-3

654 51 44 52 - irun@elduaaien.com

www.elduaaien.com

GAZTEEN EGUNA

Gazteen Eguna, jaien aurrekari

ANE MENDIZABAL SARRIEGI

Aurten Gazte Asanbladak antolatu du Gazte Eguna eta hori izan da, bereziki, biharko egunaren berezitasuna. Uztailean asanbladara deitu eta «arrakasta» izan zuela azaldu du Patxi Muñozek, asanbladako kideak. «Mezu argia bidali genuen: guk egiten ez badugu ez da Gazte Egunik izango». Prestutasun horrek, argi utzi zuen hondarribiar gazteak gogotsu egoteaz gain, ardura bere gain hartzeko prest daudela. Gazte Asanbladako 20 eta 23 urte arteko hogeita hamar bat



Bazkaria Zumardian izango da, urtero bezala. HITZA

gaztek osatu dute taldea, eta buru-belarri aritu dira uda osoan zehar bihar gauzatuko den eguna prestatzen.

Talde honek antolatuko duen lehen Gazte Eguna izango den arren, prozesua erraza izan dela azaldu du Muñozek. Zenbait, 2019ko antolaketa taldean izan ziren, eta eginbehar konkretuak ikusi eta horiek «ondo definitu» zituzten hasiera-hasieratik.

Egunak aurreko urteetako formatu bera izango du. Goiz-goizetik hainbat jarduera prestatu dituzte. Bazkaria Alamedan izango da, eta horren ondoren

kontzertuak izango dira 00:30ak arte. Egitarau osoa bidasoa.hitza.eus atariko *Agenda* atalean ikus daiteke.

HARREMAN TZE EREDU BERRIAK

Ondo pasatzeko eguna izateaz gain, harremantze eredu berriak eraikitzen joateko aukera emango duen eguna dela uste du Muñozek. «Hondarribia bezalako herri batean sozializatzeko dugun eredu, askotan, nahiko triste da uste dut, eta Gazte Egunarena bezalako egitasmoek eredu berriak eraikitzeko aukera ematen dute». ✕

Done Pedro Itsas Gizonen Kofradiak
jai zoriontsuak opa dizkizue!

Gora
Guadalupeko
Ama!

DONE PEDRO
ITSAS TRESNAK

www.kofradia.org
Tel.: 943 642152
Txiplao, 8. 20280 Hondarribia.



**EGITARAU
OSOA
HEMEN**

labur.eus/
bidasoagenda

Rebeka Ruiz



HASIERA

Hilaren 6an, 11:00etan. Ez da jaien hasiera ofiziala, baina esan daiteke festen lehen bultzada handia ematen dien ekitaldia dela: Kale Nagusian, udal-txearen parean, gaztetxoentzako zentxo puzgarriak eta konfeti eta globoen jaurtiketa egingo dute.

Asier Perez-Karkamo



HAUREN DANBORRADA

Hilaren 7an, 11:15ean. Mendelu auzotik hasi, Amute Kosta eta Santa Engrazia pasa, eta hirigunetik bira egingo du aurten ere haurren danborradak herria burrunbaz eta kolorez betetzeko. Entseguak hilaren 5 eta 6an dira, 18:00etan.

Asier Perez-Karkamo



DANTZARA!

Hilaren 9an, 18:00etan. Kemen Dantza Taldeak ez du hutsik egingo Hondarribiko festetan. Hilaren 9ko arratsaldean ikuskizuna eskainiko dute herritik: Gernikako Arbolan hasi, Kale Nagusia pasa, eta Arma Plazan bukatuko dute.

Rebeka Ruiz



ARRANTZALEEN EGUNA

Hilaren 10ean. Jaietako azken aurreko eguna arrantzaleena da. Gazteek jolasak nahiz bazkaria (irudian) egingo dituzte. Adinekoek ere otordua dute.

Aupa

Hondarribi!

www.restaurantehondar.com

Zuloaga, 20. HONDARRIBIA. Tel.: 943 64 27 83

“

Egiluze ikastetxeak jai zoriontsuak opa dizkizue

infohondarribia@egiluzetaldea.eus
hondarribia.egiluzetaldea.eus

egiluze

ikastetxea

Hezkuntza familiarterko gaia baita

Jai zoriontsuak pasa eta euskaraz bizi



Hondarribiko
Udala

HONDARRIBIAN
EUSKARAZ
EUSKARALDIA